

SAKANAKO EMAKUME ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNERAKO I. PLANA

Sakanako Mankomunitateak, Berdintasun Zerbitzuak bultzatuta, “*errotik Sakana parekidea*”, Sakanako emakume eta gizonen arteko Berdintasunerako I. Plana diseinatzeko parte hartzeko prozesua martxan jarriko du ondorengo hilabeteetan.

1. AURREKARIAK

2018an Sakanako Mankomunitateak eskualdeko emakume eta gizonen arteko genero-desorekak aztertzea helburu zuen diagnostiko parte-hartzailea burutu zuen. Lanketa horren ondorioz sortu zen 2019ko apirilean Mankomunitateko Berdintasun Zerbitzua.

Honela, Zerbitzua martxan jarri zenetik 9 hilabete pasata, Berdintasunerako Plana diseinatzeko parte hartzeko prozesu bat abian jarriko da, eta garai berri bati hasiera emango zaio, Berdintasunerako Plan honen bidez eskualde mailako ikuspegia izango duten berdintasun politikak lantzeko aukera izango delako. Tokiko esparrua da herritarrengatik eta sare ekonomiko eta sozialetik hurbilen dagoena, eta, hortaz, esparru egokienetako bat da emakumeen eta gizonen berdintasuna integratzeko.

2. SAKANAKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNERAKO I. PLANA

Berdintasunerako plana ekintza konkretu batzuen bitartez emakume eta gizonen artean berdintasuna lortzeko tresna bat da, eta berdintasunaren aldeko lana estrategia baten barruan txertatzeko, ekintzak sistematizatu eta emaitzak optimizatzeko balio-du.

Sakanako Emakume eta Gizonen Berdintasunerako I. Plana parte hartzeko prozesu baten batez baliatuz gauzatuko da, eta bere diseinuan Mankomunitateko Zerbitzuek, Udalek, herritarrek eta eragile ezberdinek parte hartuko dute.

Planak helburu orokor bezala dauka, alde batetik, Mankomunitateko zein Udaletako kudeaketan genero-ikuspegia txertatzea, eta, beste alde batetik, Sakanako emakumeen aukera eta eskubide berdintasuna bermatzea. Xede hauek oinarritzat hartuta, Plana ondorengo lau arloen gainean egituratuko da:

-“Toki-gobernamendua eta genero zeharkakotasuna”

- “Emakumeen kontrako indarkeriarik gabeko bizitzak”

-“Bizitzaren jasagarritasuna, zaintzaren etika garatuz eta bateragarritasuna eta erantzunkidetasunez.

-“Emakumeen ahalduntzea, parte hartze sozio-politiko eta balioen eraldaketa”

Bestalde, emakume eta gizonen arteko berdintasunerako I. Planak, Plan Estrategikoak (2020-20250) zehazten dituen ildo estrategikoak ere landuko ditu.


3. NOLA EGINGO DUGU?

Sakanako Berdintasunerako I. Plana diseinatzeko, parte-hartze prozesua martxan jartzea proposatu da. Parte hartzeko prozesu honen bidez hainbat helburu lortu nahi dira. Alde batetik, emaitzarekin zerikusia dutenak; hau da, BPren helburu eta ekintzak zehaztea. Eta beste alde batetik, berriz, prozesuarekin lotutako helburuak.

Sakanako Mankomunitateko Berdintasun Zerbitzuak urrian ekin zion etorkizuneko Berdintasunerako Planaren diseinuaren lanketari. Honela, Berdintasun Batzordea sortu eta ondorengo hiru hilabetetan, ahalduntze saioen bidez, gaiaren inguruko prestakuntza eskaini zaie Batzordeko partaideei. Bestalde, saio hauetan BPren lehen hezurdura edo egitura landu eta adostu da batzordekideekin.

Proposatutako prozesuari jarraiki, 3. fase honetan, parte-hartze saioak burutuko dira.

- **METODOLOGIA**



PARTE HARTZE SAIOAK

3. fase honetan eraldaketa eta programazio faseari ekingo diogu eta erabiliko den metodologia parte-hartzailea izango da. Honela, parte-hartze saioetan gogoeta eta eztabaida kolektiboaren bidez Planaren irizpideak, lehentasunak, baldintzak eta programak definitu ahal izango dira. 6 parte-hartze saio egitea aurreikusi da, eta hauen egitura honako hau izango da:

- Berdintasun-gaien inguruko oinarrizko prestakuntza eskainiko da
- Berdintasunerako Planaren hezurdura aurkeztuko da
- Talde-lana egingo da, Planerako ekarpenak jasotzeko

Parte-hartze saioak Idoia Lekue, berdintasun aholkulariak, eta Mankomunitateko Berdintasun teknikariak gidatuko dituzte, eta 3 orduko iraupena izango dute.

FOCUS GRUP edo kontrasterako saioak

Bi "Focus grup" egingo dira. Bat, Berdintasun Batzordearekin eta bestea Berdintasun arduradun eta adituekin. Focus Grup hauen helburua da aurretik landutako Berdintasunerako Planaren egitura eta mamia kontrastatzea.

AURKEZPEN SAIOAK eta ON-LINE BIDEZKO EKARPENAK

Herritarrei bideratutako aurkezpen-saioak egingo dira, eta saio hauetan ekarpenak jasotzeko aukera izango da.

Oro har

- **KRONOGRMA**

2019			
URRIA-AZAROA ABENDUA		1. fasea	Berdintasun batzordea sortu
		2. fasea	Ahalduntze tailerrak eta BP hezurdura adostu
2020			
URTARRILA		3. fasea	Berdintasun Planaren diseinuarekin hasi
			Parte hartze saioak
OTSAILA			
	otsailak 3, 17:00-20:00		Alkateak eta bestelako zinegotziak
	otsailak 7, 10:00-13:00		Udal teknikariak eta Gizarte Zerbitzuak
	otsailak 10, 17:00-20:00		Emakumeak, mugim feminista eta emakume elkarteak

	otsailak 14, 10:00-13:00		Mankomunitateko langileria
	otsailak 17, 17:00-20:00		Herritarrak, elkarteak, Apymak, ...
	otsailak 21, 10:00-13:00		Tokiko Garapena-Garapen agentzia eta Cederna, ...
MARTXOA		4. fasea	1. zirriborroaren kontrastea
			Focus grup
			1-Focus Grup BATZORDEA
			2-Focus Grup: arduradunak eta adituak.
			On-line bidezko parte hartzea
			3 aurkezpen saio
APIRILA		5. fasea	Azken dokumentua onartu eta jendarteratu

Sakanako Mankomunitateak errotik, sustraietatik, egin nahi du berdintasunerako bidea eta, horregatik, herritarrak eta bereziki emakumeak, elkarteak, arduradun politikoak, eta interesa duen oro gonbidatu nahi ditu prozesu honetan parte hartzera eta ekarpenak egitera.

